

## EUSKAL HERRIKO ARTEAREN HISTORIA FEMINISTA BATEN BILA

**Tesiaren egilea:** Ane Lekuona Mariscal

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Artearen Historia eta Musika Saila

**Tesi-zuzendaria:** Haizea Barcenilla Garcia eta Maite Méndez Baiges

**Tesiaren laburpena:**

Doktoretza-tesiaren asmoa da 1950-1972 urteen inguruko Euskal Herriko artearen historia ikuspuntu feministatik berrikustea, eta beste historiak imajinatzeko bideak irekitzea. Aztergaia historia legitimatu bera izanik, kontaketa kronologia berdinari jarraitu diogu: Arantzazuko Basilikaren proiektutik hasi eta 1972ko Iruñeko Topaketetaraino.

Sarrera, aztergaiaren egoera eta metodologia aurkeztu ondoren, lehen kapituluaren narrazioaren eraikuntza aztertu dugu. Kontaketa noiz, nola, non eta zer balio-irizpideren arabera osatu zen ikertu da, eta zelako lotura dagoen eraikuntza horren eta emakume artisten ezagutza faltaren artean. Idatzizko historiografiaz gain, narrazioa legitimatzeko garrantzitsuak izan ziren beste agente batzuk ere hartu dira kontuan: kultur politikak, erakusketak edo espazio publikoaren interbentzioa, besteak beste. Bigarren kapituluaren emakume artistek «artista» kategoriarekin izan zuten harremana aztertu da. Hezkuntzak izan zuen pisua arakatu eta testuinguruan barneratzeko bi fokuri jarri diegu atenzioa: prentsa idatziari eta emakume artistek hedabideetan jaso zuten proiektzio bisualari. Autorretratuen azterketa ere lagungarria izan da «artista» kategoriaren identifikazioa nolakoa izan zen ulertzeko.

Hurrengo kapituluak desafioa luzatu dio kontaketa marko geografikoari, eta muga geopolitikoetatik kanpo izan ziren emakume artistak ezagutzera jo dugu, hala nola Gerra Zibilarengatik erbesteratu behar izan zirenetara edo Iparraldeko artistetara. Horrek aukera eman digu emakume artistek Ipar eta Hego Euskal Herrian izan zituzten diferentziak antzemateko. Laugarren zatian abstrakzioa landu da, kontaketa erro androzentrikoan elementu garrantzitsua izan zelako. Estiloak garai ezberdinetan jaso zituen irakurketak hausnartu dira eta horietan genero-markak izan zuen garrantzia aztertu da. Kuantitatiboki gutxi izan baziren ere, abstrakzioa landu zuten andrazko artistak ere izan ziren gurean, zeinek estrategia eta negoziazio-bide ezberdinak garatu zituzten.

Ondorengo kapitulua teknika eta materialen eremuari dagokio. Alde batetik, ikuspuntu feminista batetik eskulturak kontaketa tradizionalan izan zuen protagonismoa kuestionatu da eta, halaber, eskultura landu zuten emakume artistak aztertu ditugu. Bestetik, pintura eta eskulturaz gain, bestelako prozedurak landu zituzten andrazko artistak ezagutu dira: arte-dekorazioa, ilustrazioa, argazkigintza edo josteta landu zutenak. Azkeneko atalean, kontaketa hegemonikoak babestu zuen «arte politiko»aren kategoria berrikusi da, eta ondorioztatu dugu gure kronologian izan ziren emakume artista dezentek etiketa horren mugak zabaldu zituztela beren lan artistikoetan. Hartatik, arte-praktikaren eta printzipio feministen lerrokatzea nolakoa izan zen hausnartu da. Tesia ikerketa-prozesuaren ondorioekin amaitu da, eta bibliografiaren zerrendak eman dio itxiera.